

# BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure gaueko pultsera denda fisikotan, Internet bidez eta herriko festetan jartzen diren postuetan eros daiteke.

Horretarako, web orri propio bat izango dugu, informazioa eta laguntza eskuratzeaz gain, pultsera erosteko aukera eskainiko duena. Hasiera batean eskualdeka salduko da eta arrakasta izanez gero, Espainia osora hedatzeko aukera emango da.



Edonork ez duenez denda handi hauetara heltzeko erraztasuna, herriko kultur etxeetan, emakume etxeetan eta herriko tabernetan salgai egongo da gure produktua. Esan dugunez, arrakasta handia izanez gero, Media Mark, Fnac eta PC Boxera zabalduko gara, denda hauek teknologia desberdinak saltzen baitituzte. Hara joaten den jendea teknologiako adituak dira eta gainera, denda hauek hirien zentroetan egoten dira normalean; honek gure enpresarako onuragarria izan daiteke, jende askoren eskura egon ditzakelako

Gure web orriaz gain denda hauen web orrietan ere erostea posible izango da; web orri hauek fidagarriak eta errazak direnez bezeroak eroso sentituko dira bertan erosteko. Beraz bitarteko kanalak eta kanal zuzenak



erabiliko ditugu; Interneten bidezkoak eta denda fisikokoak alegia.

Aurreko guztiaz gain, bezeroek gure produktuaren berri izateko hainbat sare sozialetan iragarki txikiak jarriko ditugu, Youtuben eta Instagramen adibidez; telebistan jartzea bainon merkeagoa delako.

Hala ere, denborarekin diru gehiago lortzea espero dugu eta ondorioz, telebistan eta denda fisikoetan iragarki handiagoak jartzeko aukera izango dugu. Aipatu beharra dago, hasiera batean kartela edo bereizgarriren bat jarriko dugula herriko kultur etxeetan, gure postuetan, emakume etxeetan edota herriko tabernetan, jendeak jakin dezan bertan gure pultserak hor salgai daudela.

Gure lehen bezeroak ditugula, influenzerren zerbitzuak kontratatuko ditugu, pultseraren enbaxadore moduan, honela gustu desberdineko pertsonen gure gaueko pultseraren funtzionamendua ezaguaraziko diegu. Kontrata genezakeen influencer bat, Marina Ostolaza, donostiarra da. Berarekin kontaktuan jarriko ginateke eta berak Instagramen eta TikToken bidez publizitatea egingo luke. Marina aukeratu dugu emakume bat delako eta Donostin bizi delako, hau da euskalduna delako. Azken finean, bertako enpresa izanik, gure inguruko pertsonekin lan egitea gustatuko litzaiguke. Gainera, hurbiltasunak komunikazioa erraztu dezakeela uste dugu.



Gure lana egin bitartean, hau da, gure produktua saldu bitartean informazio txartelak edo paperak banatu egingo ditugu. Bertan pultseraren ezaugarriak eta funtzionamendua agertuko zaie bai interesa dutenei bai erosi egingo dutenei.